

Elkarriren VII. Batzar Nagusia
Oinarrizko txostenaren 2. dokumentua

Elkarriren Jarduera Plangintza 2003-2005rako

Zubi berri bat eraiki

Construir un nuevo puente

2003ko martxoaren 1a

Hirugarren zatia Esku-hartze egitasmoa

Balantzea, Egoeraren diagnostikoa, Elkarriren oinarriak eta zeregina ataletatik ateratako ondorioekin zuzeneko lotura dute esku-hartze proiektuaren edukiek. Hurrengo bi urteotarako jarduera-ildo nagusiak finkatzen ditu esku-hartze egitasmoak. Orientabide orokorrak dira, Sei Hileko Jarduera Planen bidez (PAS) zehaztu beharrekoak, gertakarien eta proiektuaren garapenaren arabera betiere. Bost ataletan banatzen da hirugarren zati hau:

1. Helburuak.
2. Erreferentziazko proposamena.
3. Estrategia.
4. Lan-alorrak.
5. Laburpen-koadroa.

1. Helburuak

Aurreko esku-hartze proiektuen egitura berari jarraiki, bi multzotan jarri ditugu helburuak. Lehenbizi, helburu orokorrak; ondoren, helburu zehatzak.

1.1. Helburu orokorrak

Eduki estrategiko bera dute helburu orokor guztiek. Elkarriren azken helburua eta sorrera-xedea da lehenbizikoa: horri begira dago esku-hartze egitasmo osoa. Bigarrena, berriz, egungo egoeratik abiatuta egiten den aurrerabideari dagokio. Hirugarrenak alderdien arteko elkarrizketa martxan jartzea du helburu.

1.1.1. Konpontze-prozesua

Egungo egoera konpontzeko bake-prozesua prestatzea eta bultzatzea, ahalik eta partaidetza handiena eta zabalena duena.

1.1.2. Horretarako baldintza egokiak

Elkarrizketa eta bake-prozesu erabakitzailea ahalbidetzen duten baldintzak bultzatzea. Esku-hartze egitasmo honen *Helburu zehatzak* deitzen diegu (1.2. puntua).

1.1.3. Elkarrizketarako eremu berria

Alderdien arteko elkarrizketa-eremu berri bat bultzatzea, bake-prozesu erabakitzailea lortzeko helburuz betiere. Esku-hartze egitasmo honen *Erreferentziatzko proposamena* deitzen diogu ekimen horri (2. puntua).

1.2. Helburu zehatzak

Bigarren helburu orokorrak honakoa dio: bake-prozesu erabakitzailearen baldintzak ahalbidetzeko, esku-hartze prozesu honen helburu zehatz gisara jarri behar direla. Bi alderdi ditu erabaki horrek. Bata, bere ekimen-ahalmenaren menpeko bakarrik ez diren helburuekiko konpromiso handiagoa hartu behar duela Elkarririk. Bestea, baldintza horietan jarduera eraginkorragoa eta eraikitzaileagoa gauzatu beharra daukala. Sei helburu zehatz bildu ditugu atal honetan, bake-prozesuaren konponbide-faserako testuinguru egokia sortzeko asmoz betiere:

1.2.1. Su-etena

Su-eten giroa lortzeko ahaleginak egin behar dira. Giza eskubideen eta indarkeriarik ezaren printzipioarekin bat dator helburu hori; horrez gain, bizitzeko eskubidearen babesa lehentasun bilakatzen du eta, azkenik, bi blokeo-faktoreren aurka (indarkeria eta mehatxuak) dihardu.

1.2.2. Legalizazioa

Batasunaren ilegalizazioaren egoera gainditu eta bermeen eta askatasun demokratikoen sitemaren atzerakada autoritarioari pluralismoarekin eta printzipio demokratikoekin erantzungo dion testuingurua sortzen ahalegindu behar dugu. Beste blokeo-faktore baten aurka (bazterketa) dihardu helburu honek eta lotura estua du berdintasun-printzipioarekin eta inor ez baztertzearekin.

1.2.3. Aldez aurreko adostasunak

Alderdien arteko elkarrizketa- eta aldez aurreko adostasun-prozesua bultzatu behar da, denek onartzen dituzten printzipio eta prozeduren inguruan, bake-prozesua eratzeko. Horretarako baldintzak, honakook behar dute izan: indarkeriarik eza, inor ez baztertzea, aldebakartasunik eza eta betorik eza. Helburu horrek konfiantza sorrarazten du eta bi blokeo-faktoreri egiten die aurre: aldebakartasunari eta betoari. Elkarrizketa eta askoren arteko akordioa printzipioak aplikatzen ditu, batetik; bestetik, elkarrekiko bermedun akordioak lortzeko behar diren elkarrizketa-eremuak sortzeko lehentasuna gauzatzen du.

1.2.4. Gizartearen partaidetza sendotzea

Bake-prozesuaren aldeko gizarte-sarea sendotu eta zabaldu egin behar da. Horretarako, herritarren partaidetza, mobilizazioa eta bultzada sustatu beharra dago. Bake Konferentziaren eta –aldi berean– egoeraren diagnosiaren ondorioetako bat garatzen du aipatu helburuak. Horixe da, gainera, Elkarriren jarduera-eremu nagusietakoa 2003-2005 eperako.

1.2.5. Kanpoko laguntza-sarea

Bake-prozesuaren aldeko laguntza-sarea eratu behar da Estatuan eta nazioartean. Bake Konferentziaren eta egoeraren diagnosiaren ondorioak garatzen ditu helburu honek (aurrekoak bezala). Bestalde, Elkarriren eginkizunen ardatzetako bat da hori.

1.2.6. Humanizazioa

Humanizazio-testuingurua lortu behar da: biktima guztiak (salbuespenik gabe) babestea, Bakegintzarako Hezkuntzarako proposamenetan sakontzea, diskurtsoak eta jarrerak baretzea (desarmatzea), herritar guztien (preso nahiz aske egon, kolore politiko bateko zein bestekoak izan) eskubideak eta oinarritzko askatasunak aintzat hartzea. Blokeo- eta mesfidantza-faktore guztiei ekiten die helburu honek, giza eskubideen printzipioa garatzen du eta desblokeo-giroa sortzeko lehentasunari laguntzen dio. Zentzu humanizatzaile honekin, sentikortasun eta tradizio politiko desberdinen artean distentsio-giroa sortu asmoz, ezinbestekoa da komunikabideen parte-hartze aktiboa gatazka eta indarkeria egoeraren eraldakuntzan, eta euskal gizartearen zenbait sektore sozial eta politikoen iritziak emateko gai izatea, bake-prozesu erabakitzaile bat errazteko.

2. Erreferentziazko proposamena

Esku-hartze proiektu honen erreferentziazko proposamenak zuzeneko lotura du hirugarren helburu orokorrarekin: *alderdien arteko elkarrizketa-testuinguru berria bultzatzea, bake-prozesu erabakitzaillearen printzipio eta prozeduren inguruan ados jartzeko*. Alderdien arteko elkarrizketa-testuinguru hori sortzea da, beraz, erreferentziazko proposamena.

2.1. Proposamenaren edukiak

Proposamen hau xehatzeko txostena egin behar da (hala dagokionean). Bost multzotan banatu ditugu horren eduki eta ezaugarri nagusiak.

2.1.1. Helburua

Berriro ekitea da proposamen honen helburua. Lehenbiziko Bake Konferentziaren (1995ekoa) eta bigarrenengoaren (2001ekoa) ondoren, «zubi berri bat eraikitzea» da esku-hartze proiektu honen erreferentziazko proiektua. Bake Konferentziaren prozesu berri bat prestatzea lau proiektuekin: gizartearen mobilizazioa, foro soziala, Euskal Herriko bakearen aldeko nazioarteko Kongresua eta indar politikoen arteko elkarrizketa alderdianitza. Bere helburua: bake-prozesu erabakitzaille baterako printzipioen, prozeduren eta konpromisoen inguruan akordio zabala lortzea.

2.1.2. Oinarriak

Hiru oinarri izan behar ditu proposamen honen prestakuntzak: (1) II. Bake Konferentziaren esperientzia eta haren ondorioak; horrekin batera, bake-bidea proposamena, (2) Elkarriren partaidetza-komunitateari gaiari buruz galdegitea eta ekimenaren aldeko behar adinako babesa lortzen saiatzea, eta (3) bake-prozesu erabakitzaillea gauzatzeko behar diren baldintzak sortzeko egin beharreko lana.

2.1.3. Unea

VII. Batzar Nagusia amaitu bezain pronto (2003ko martxoa) hasi behar dugu proposamen hau prestatzen. Garapen-faseari, berriz, 2004ko udaberritik aurrera ekin behar zaio. Prozesuan parte hartzen duten alderdiei eta gainerako eragileei galdegin behar zaie noiz jarri behar den martxan proiektua.

2.1.4. Eredua

Erabat zabalik dago gaur egun Bake Konferentziaren ereduari buruzko eztabaida: egun gutxi batzuetan kontzentra daiteke (halaxe egin genuen I. Bake Konferentzian); garapen luzeagoa izan dezake (II. Konferentzian egin genuenaren antzekoa), edo hainbat etapatan egin liteke, baita hainbat lekutan batera ere. Behin betiko diseinua ahalik eta adostasunik zabalenak bilatuz egin beharko da.

2.1.5. Antolakuntza

Adostasunak, lankidetzak eta Euskal Herriko, Estatuko zein nazioarteko gainerako eragileekiko elkarlanak izan behar dute Bake Konferentziaren hirugarren topaketaren giltzarri. Prozesu honen lau proiektu nagusiek –mobilizazioa, foro soziala, Nazioarteko Kongresua eta elkarrizketa politikoa– egituratuko dute bere antolakuntza-eredua.

2.2. Proposamenaren egokitasuna dela eta

«Berriro ere ekin» egin behar diogula diosku proposamenak. Bi ikuspegi kontrajarritak begira genezake ideia hori: lehenengoa «errepikapen hutsa litzateke» dioen ideian oinarrituta, bigarrena, «egindako lanaren bidetik jarraitu behar dugu, eta hura osatu» dioen ideian oinarrituta. Bigarren ikuspegiaren alde egiten dugu guk, proposamenaren egokitasunaren aldekoarekin alegia.

2.2.1. Prozesu-ikuspegia

Bost alderdi politiko elkartu zituen bost egunez I. Bake Konferentziak. Egon zen adostasunik hausnarketetan, baina alderdiek ez zituzten izenpetu. Hamar alderdi elkartu ditu urtebetez II. Bake Konferentziak (denak, UPN eta PP izan ezik). Eraitza: amaitu gabeko negoziazioa eta adostasunerako bi zirriborro (ez onartuak ez errefusatuak). Prozesu-ikuspegitik begiratuta, egokia liru-dike hirugarren saioari honako helburu hauekin ekitea: (1) negoziazioa osatzea edo amaitzea, (2) zirriborroak akordio bihurtzea, eta (3) alderdi politiko guztien partaidetza lortzea. Heldutasun-seinale besterik ez da, izan ere, helburu bat eskuratzeko ahalegin bat baino gehiago egin behar izaten direla onartzea.

2.2.2. Aurrekariaren indarra

Orain arte egin ditugun bi Bake Konferentziak dira Elkarririk aldarrikatzen duen elkarrizketa bidezko konponbidearekiko hurbiltze garbienak. Bigarren Bake Konferentzia, gainera, gure mugimenduak sekula izan duen babesik handienaren (euskal gizartearena zein nazioartekoa) ispilu izan zen. 2001eko udaberriaren gure partaidetza-komunitateak eta milaka herritarrek egin zuten bat Bake Konferentziarekin, ideia hori zertan zetzan zehazki ez bazekiten ere. Gaur egun, ordea, badakite zertan datzan eta argiro dakusate ekimenaren helburua. Bestalde, hiru gauza behintzat helarazi dizkiogu gizarteari: bakea lortzen ahalegindu egin garela; aurrera egin dugula, helburu guztiak lortu ez ditugun arren, eta, hirugarrenik, horiek lortzeko asmo sendoa dugula. Gure ekimenak arrasto positiboa eta errealista utzi du gizartearen. Zentzuzkoa litzateke, beraz, «arrasto» horren eta Bake Konferentziaren ideiak utzitako eraitza eta sinergia positibo guztiei etekina ateratzea.

2.2.3. Aurrera jarraitzeko eskakizunak

II. Bake Konferentziaren esperientzia eta eraitzak ikusirik, ekimen hori berriro bultzatzeko eskari ugari jaso ditu Elkarririk. Hainbat eta hainbat herritar, alderdi politiko, moderatzaile, laguntzaile, aholkulari, Laguntza Batzordeetako kide eta nazioarteko sareko partaide bat etorri dira horretan: denbora behar da, eta ahalegin bat baino gehiago, gure blokeo-egoera honetan inflexio-punturen bat lortzeko. Zentzuzkoa litzateke, gure ustez, iritzi horiek guztiak kontuan izatea.

2.2.4. Blokeoa

Blokeo-egoerak bere horretan jarraitzea ere arrazoi sendoa da beste ahalegin bat egiten saiatzeko, korrontearen aurka aritzea tokatuko bazaigu ere. Gauzak inoiz baino okerrago dabiltzanean izaten da inoiz baino premiazkoagoa elkarrizketa-eta bitartekaritza-esparruak lantzea. Gure herriaren gatazka gainditzeko elkarrizketa-eskaintza iraunkorra eta egonkorra behar du.

2.3. Proposamenaren behin-behinekotasunaz

Gure herrian gaur egun dagoen testuinguru nahasi eta konplexu honetan ez dago behin betikotzat jotzerik etorkizuneko proiektu bat hamabi hilabeteko aurrerapenez. Hainbat baldintzaren arabera bihur daiteke behin betiko oraingoz behin-behinekoa den proposamen edo orientabide hori. Bi baldintza azpimarratuko genituzke:

2.3.1. Kontsultaren eraitzen arabera

Pauso alferrikakorik edo okerrik ez emateko, ziurtatu beharra dauka Elkarririk baduela proposamenak behar hainbateko babesik bere partaidetza-komunitatean. Masa kritikoa behar dute era honetako ekimeneak. Horrenbestez, galdeketa egingo du Elkarririk bere partaidetza-komunitatean 2003ko martxoaren 3a eta irailaren 30a bitartean honako honetaz: prest al dago komunitate hori Bake Konferentziaren hirugarren topaketa babesteko? Galdera horrek 10.000 baiezko erantzunetik gora jasotzea proposamenaren bideragarritasun-seinalea (lehenbizikoa) litzateke. Horrekin batera, eta pixkanaka-pixkanaka, alderdi politikoei eta Euskal Herriko, Estatuko eta nazioarteko laguntzaileei ere egingo lieke Elkarririk galdera bera.

2.3.2. Egoeraren arabera

Kontuan hartu beharreko beste zera bat honakoa litzateke: Bake Konferentzia bultzatu beharrik ez izatea (edo egokia ez izatea) egoera aldatu egin delako. Horrela gertatuz gero, Elkarriren Tailer Nazionalak batzarra deitu beharko du behin-behinekotasun horren aurrean nola lan egin eztabaidatzeko.

Elkarrik (edozein arrazoi dela medio) beste Bake Konferentzia prozesurik ez bultzatzea erabakiko balu, Tailer Nazionalak alternatibaren bat aurkeztu beharko luke PASen (Sei hileroko Jarduera Programak) bidez, eta batzar-deialdia egin beharko luke.

3. Estrategia

Elkarriren estrategiak egungo egoeran baliagarri gertatu diren eta gure mugimenduaren hamar urteko ibilbidearen esperientziak sobera kontrastatu dituen hainbat irizpide izan behar ditu gidari. Hiru multzotan bildu ditugu aipatu irizpideak: jarduera-, estrategia- eta autoantolakuntza-irizpideak.

3.1. Jarduera-irizpideak

Egoeraren diagnostikoa eta II. Bake Konferentziaren ondorioak oinarri harturik, honako irizpide bikoitz hau izan behar dute gidari Elkarriren jarduerak: jarrera positiboak eta gardentasuna (ateak zabalik edukitzea).

3.1.1. Jarrera positiboak

Ikuspegi positibotik defendatu behar dira printzipioak, ekimen zuzenak, helburu zehatzei garbiro lotuak, bultzatuz.

3.1.2. Gardentasuna

Ekimenak gauzatzeko gardentasun-irizpidea erabili behar da, hau da, argitasunez, pixkanaka aurrera eginez, besteekiko elkarlanean jarduteko eta indarrak metatzeko prest aritu behar dugu.

3.2. Elkarrekintzarako irizpideak

Ekintza ez ezik elkarrekintza ere erabiltzen du Elkarrik, hots, eragile guztiekin harremanetan aritzen da. Honako erreferentzia hauen arabera gauzatu behar da elkarrekintza:

3.2.1. Zeharkakotasuna eta bertikaltasuna

Zeharkakotasun-irizpide orokorra erabili behar du Elkarrik gizartearen joera politiko eta sozial guztietara heltzeko; bertikaltasuna, berriz, politikaren zuzendaritza-mailan eta gizartearen oinarrian (edo erdibideko eremuetan) jarduteko.

3.2.2. Jendaurrean ala isilpean?

Esperientziak erakutsi digunez, ongi bereizi behar dira beti jendaurrean egin daitezkeen jarduerak eta –zuhurtzia dela medio– isilpean egin beharrekoak. Egokiro konbinatu behar ditu elkarrekin gure mugimenduak jendaurreko jarduera eta isilpekoa.

3.3. Autoantolakuntza-irizpideak

Balio estrategikoa du autoantolakuntzak, hortik abiatuta egin baitaiteke gainerako guztia.

3.3.1. Barne-sendotzea

Barne-sendotzea da Elkarriren helburuetako bat, eta horretara bideratu behar du ahaleginen zati bat. Erakundearen funtzionamendua zein eraginkortasuna hobetzea partaide-, tailer-, laguntzaile- edo bazkide-kopurua handitzea da sendotze horren xedea.

3.3.2. Autofinantziazioa

Aurreko atala bezain garrantzitsua da honakoa: Elkarriren ohiko jardueraren eta bere kanpaina edo ekimenen autofinantziazioa lortzea. Guztiz beharrezkoa da horretarako azken urteotako esperientzian sakontzea.

4. Lan-alorrak

Zazpi lan-alorretan egituratu dugu honako esku-hartze proiektu hau. Guztiek helburu berbera dute (bake-prozesu erabakitzailea) eta prozesu hori abiarazteko baldintzak bultzatu behar dituzte. Beraz, Bake Konferentziaren hirugarren topaketa prestatzea eta antolatzea da lan-alor guztien jomuga. Hiru multzotan banatu ditugu lan-alor bakoitzari dagozkion xehetasunak: irizpide orokorrak, proiektu nagusiak eta egutegia. Gogoan izan txosten honek (atal honek, bereziki) orientabide orokorrak eskaintzen dituela, gerora Sei hileroko Jarduera Programen bidez (PAS) zehaztu, egokitu edo zuzendu beharrekoak.

4.1. Estrategiaren koordinazioa

4.1.1. Irizpide orokorrak

Lan-alor honen eginkizuna honakoa da: esku-hartze proiektuaren aplikazioa planifikatu, koordinatu eta sustatzea. Horrekin batera, sarri-sarri balioztatu behar ditu emaitzak eta etengabe eguneratu behar du estrategia.

4.1.2. Proiektu nagusiak

I. Elkarriren partaidetza-komunitatea kontsultatzea

Helburuak. Gizartearen partaidetza ahalik eta zabalenera aukera ematea Elkarrik hurrengo bi urteotarako eratu nahi duen proiektu garrantzitsu horretan parte hartzeko. Bake Konferentziaren hirugarren topaketak zenbateko babes soziala izango lukeen jakitea eta laguntzaile-sare zabala prestatzea, prozesuaren ekimen sozial nagusien euskarri izan dadin.

Edukiak. Batzar-prozesua amaitu ondoren, foileto xume bat igorriko die Elkarrik 2003ko martxoa eta iraila bitartean bere laguntzaileei, bazkideei eta partaidetza-sare osoari honako helburu honekin: Bake Konferentziaren hirugarren topaketa egitearekin bat ote datozen jakitea. Baiezko erantzunak hamar milatik gora balira, egin egingo da Konferentziaren hirugarren atala. Galdeketa baiezkoa erantzuten dioten guztiek ekimen honen inguruko informazio eta proposamen guztiak jasoko dituzte, hala nahi balute Konferentzian parte har dezaten, edo hari lagundu.

Galdeketa horrekin batera beste hainbat ekimen ere egingo ditugu: informazioa etxe etxe banatu (postontzien bidez), kale-irteerak, hitzaldi-kanpaina ekimena sustatzeko eta postaz zein Internetez hainbat material banatzea. Eskuz, postaz, telefonoz edo internetez jasoko dira erantzunak.

II. Planifikazio- eta ebaluazio-proiektua

Helburuak. Sei hileroko aurkeztea –PASen bidez– ebaluazio-, diagnostiko-, estrategia- eta planifikazio-txostenak. Bi urteko proiektu honen indarraldiaren amaieran horren aplikazioaren balantzea eta esku-hartze proiektu berria koordinatzea. Bake Konferentziaren proiektua ez bultzatzea erabakiko balitz, proposamen alternatiboa aurkeztea bai Tailer Nazionalari bai Batzar Nagusiari.

4.1.3. Egutegia

PAS1. 2003ko martxotik irailera arte

-Bake Konferentziaren hirugarren topaketa babesteko eta bultzatzeko prest dagoen jakitearren Elkarriren partaidetza-komunitateari egin beharreko galdeketa koordinatzea.

-Bake-bidea proposamenaren kudeaketa eta PAS1 koordinatzea. PAS2 prestatzea.

PAS2. 2003ko urritik 2004ko martxora arte

-PAS2 koordinatzea eta PAS3 prestatzea (Bake Konferentziaren proiektu-prestakuntza barne dela). Lankidetzarako aukerak aztertu behar dira, Konferentzia elkarlanean presta litekeen jakitearren.

PAS3. 2004ko apiriletik irailera arte

-PAS3 koordinatzea eta PAS4 prestatzea.

PAS4. 2004ko urritik 2005eko udaberrira arte

-PAS4 koordinatzea, prozesua balioztatzea eta, hala balegokio, PAS5 prestatzea.

4.2. Esku-hartze politikoa

4.2.1. Irizpide orokorrak

Lan-alor honetatik koordinatu behar dira alderdi politikoekiko harremanak eta elkarrizketa-metodologiarekin lotura duten jarduera guztiak, baita elkarrizketa bideratzen edo errazten dutenak ere. Beraz, atal honi dagokio Bake Konferentzia zehatz-mehatz prestatzea.

4.2.3. Proiektu nagusiak

I. Aldez aurreko aurrekordioen proiektua: hamar aurrekordio lortzeko elkarrizketa-proposamena (2003-2004)

Helburuak. Konfiantza sortzea eta Bake Konferentziaren fase bat prestatzea, bake-prozesuak behar dituen metodologiari, printzipioei, prozedurei eta konpromisoei buruzko aurrekordioak lortuz.

Edukiak. Alderdi politikoekin elkarrizketa-prozesua (zirkularra eta zeharkakoa) izatea, pixkanaka areagotuz eta abiapuntutzat Bake-bidearen konpromisoa harturik. Mesfidantza nagusiak gainditzeko aurrekordio zabala lortzea da horren helburua. Hamar aurrekordio plazaratuko ditu Elkarrik, hasieran bederen.

- | | |
|--|---|
| 1. Konpondu beharreko arazoen inguruko aurrekordia | 2. Borondate eta printzipioen inguruko aurrekordia. |
| 3. Aldebakartasunez ez jarduteko aurrekordia. | 4. Betoa ez erabiltzeko aurrekordia. |
| 5. Lurraldetasunari buruzko aurrekordia. | 6. Erabakimen demokratikoari buruzko aurrekordia. |
| 7. Biktimen inguruko aurrekordia. | 8. Gatazkaren humanizazioari buruzko aurrekordia. |
| 9. Legalitate-printzipioei buruzko aurrekordia. | 10. Mitchell printzipioari buruzko aurrekordia. |

II. Bake Konferentzian alderdien arteko elkarrizketa politikorako proiektua (2004-2005)

Helburuak. Bake-prozesu erabakitzailea lortzeko adostasun zabala gauzatzea printzipioen, prozeduren eta konpromisoen inguruan.

Edukiak. Aurreko bi Bake Konferentziak eta 2003-2004 epean aldez aurreko adostasunak finkatzeko egiten den lana oinarri harturik, elkarrizketa-metodologia diseinatu behar da (konstruktiboa eta elkarlanean), alderdi politiko ahalik eta gehien adostasunarekin. Gizarte Foroaren elkarrizketa-lanarekin, Nazioarteko Kongresuaren ekarpenekin eta herritarren mobilizazioekin batera gauzatu behar da prozesu hori.

4.2.3. Egutegia

PAS1. 2003ko apiriletik irailera arte

- Harremanak izatea alderdi politikoekin Bake-bidea proposamenaren konpromisoaz eta Bake Konferentziaren hirugarren topaketaz mintzatzeko.
- Europar Batasunetik eta AEBetatik Konferentziak jaso litzakeen laguntzak aztertzea alderdi politikoekin.

PAS2. 2003ko urritik 2004ko martxora arte

- Alderdiekin hitz egiten jarraitzea eta hamar aurrekordiotarako elkarrizketa-proposamena aurkeztea.

PAS3. 2004ko apiriletik irailera arte

- Lehenbiziko adostasunak finkatzen saiatzea, Bake Konferentziarako proposamena prestatzea eta martxan jartzea.

PAS4. 2004ko urritik 2005eko udaberrira arte

- Bake Konferentzia egitea.

4.3. Esku-hartzea gizartean

4.3.1. Irizpide orokorrak

Bi jarduera-eremu jorratu behar dira alor honetatik. Lehenbizikoa: bake-prozesu erabakitzailearen aldeko konpromiso sozial zabala bultzatzea 2003-2004 epean. Hona zein diren bake-prozesurako baldintzak: biolentziarik eza, inor bazterrera ez uztea, aldebakartasunik eza eta betorik eza. Bigarrena: foro sozialaren aldeko dinamika bultzatzea 2004-2005 epean, gizartearen askotariko ordezkariak bilduko dituen eta alderdi politikoen arteko elkarrizketari ekarpen espezifikoa egiten saiatuko dena.

4.3.2. Proiektu nagusiak

I. «Konpromiso sozial bat eta lau ekimen» kanpaina (2003-2004)

Helburuak. Gizarte-partaidetza eraginkortasunez mobilizatu eta optimizatzea; bake-prozesu erabakitzailearako eta III. Bake Konferentziarako baldintzak prestatzea.

Edukiak. 2003ko irailetik 2004ko irailera arte 100.000 laguneko partaidetza lortzea honako konpromiso sozial honetan: lau helburu argi dituzten lau ekimen sinatu eta garatzea.

1. Su-etenaren aldeko ekimena, ETArri zuzendua.
2. Legalizazioaren aldeko ekimena, Espainiako Gobernuari zuzendua.
3. Elkarrizketa eta akordioaren aldeko ekimena, alderdi politikoei zuzendua. (bake-prozesu erabakitzailea lortzeko printzipio eta prozedurei buruzko hamar aurrekordioko proposamena du oinarri).
4. Europar Batasuneko eta nazioarteko laguntza lortzeko ekimena, nazioarteko erakundeei zuzendua.

Konpromiso horrekiko adostasuna bi erataria adierazi ahal izango da: agiri bat izenpetuz eta haren aldeko mobilizazio zein ekitaldi publikoetan parte hartuz.

II. Foro Sozialaren proiektua Bake Konferentzian (2004-2005)

Helburuak Elkarrizketa-prozesu guztiz mamitsua gauzatzea, gizarte-ordezkarien partaidetza ahalik eta pluralena izango duena eta helburutzat akordioa daukana, adostasunaren eta bake-prozesuaren bidetik betiere. Alderdi politikoen arteko elkarrizketa-prozesuari ekarpen eraginkorra eta baliagarria egitea alor horretatik.

Edukiak. Elkarrizketa-metodologia konstruktiboa, lankidetzeta bidezkoa, diseinatu beharra dauka Elkarririk gizarteko ahalik eta ordezkaritza zabalena jasotzen duen akordioa adosteko. Halaber, foro honetan parte hartu behar dutenen hautaketa-prozesu zorrotza egin beharra dauka, aniztasun politikoa ez ezik beste zenbait faktore ere aintzat hartuz (territorialak, kulturalak, linguistikoak, soziologikoak...). Prozesu hori alderdien arteko elkarrizketarekin, Nazioarteko Kongresuaren ekarpenekin eta herritarren mobilizazioarekin batera garatu behar da. Egoerak horretarako biderik emanez gero, lekuan lekuko ekimen osagarriak ere egin litezke. Honetarako balio behar du horrek guztiak: normaltasunezko elkarbizitzan elkarrekin lehia daitezen gure herriko nortasun, irizpide, proiektu politiko eta proposamen guztiak.

4.3.3. Egutegia

PAS1. 2003ko martxotik irailera arte

-«Gizarte-konpromiso bat eta lau ekimen» kanpainaren proiektua prestatzea. Horrekin batera, Elkarriren partaidetza-komunitatea kontsultatzea eta Bakesarea proiektua garatzea bultzatu beharra dauka esku-hartze sozialaren alorrak.

PAS2. 2003ko urritik 2004ko martxora

-«Gizarte-konpromiso bat eta lau ekimen» (su-etena, legalizazioa, alde aurreko adostasunak eta nazioarteko laguntza) izeneko kanpaina egitea.
-Herritarren mobilizazioak bultzatzea denbora-epe horretan.

PAS3. 2004ko apiriletik irailera

-«Gizarte-konpromiso bat eta lau ekimen» (su-etena, legalizazioa, alde aurreko adostasunak eta nazioarteko laguntza) izeneko kanpaina egitea.
-Herritarren mobilizazioak bultzatzea denbora-epe horretan.
-Foro Sozialaren proiektua prestatzea eta martxan ipintzea.

PAS4. 2004ko urritik 2005eko udaberrira

-Foro Sozialaren proiektua garatzea.

4.4. Kanpoko partaidetza

4.4.1. Irizpide orokorrak

Bake-prozesuaren eta Bake Konferentziaren hirugarren topaketaren alde estatu espainiarretik eta nazioartetik datorkeen laguntza koordinatzea da lan-alor honen eginkizuna. Madril, Bartzelona, Europar Batasuna eta AEB dira Elkarrekin kanpo-jardueraren lehentasunak.

4.4.2. Proiektu nagusiak

Bake-prozesuaren aldeko nazioarteko sarea eratzeke proiektua (2003-2004)

Helburuak. Euskal Herriko bake-prozesuaren aldeko sare zabala eta plurala eratzea estatu espainiarrean eta nazioartean. 2004-2005 epean Bake Konferentzia bultzatzea izan behar du helburu berezi aipatu sareak.

Edukiak. Honako etapa hauek bete behar ditu Elkarririk: (1) mundu osoko ahalik eta jende ezagun eta erakunde gehienekin harremanetan jartzea, (2) informazio-buletin baten bidez zehaztea eta proposatzea jende- eta erakunde-multzoko horrek sarearekin behar duen lotura (bake-prozesu erabakitzailea bultzatzeko oinarrien inguruko adostasunean zehaztu behar da lotura hori), (3) etengabeko informazioa helaraztea sare horretako jende eta erakundeei, (4) Euskal Herriko bake-prozesuaren aldeko ekimenak edo laguntza-ekintzak proposatzea sareko kideei, eta (5) ekarpen zehatzak egin ditzaketenak eta Bake Konferentziaren Nazioarteko Kongresuan parte har dezaketenak aukeratzea.

II. Bake Konferentzian Nazioarteko Kongresua egiteko proiektua (2004-2005)

Helburuak. Ahalik eta kanpo-ordezkaritza handiena biltzea Bake Konferentziaren alde egin dezan.

Edukiak. Nazioarteko erakunde eta gizon-emakume ospetsuentzat harrera-esparrua prestatzea, Bake Konferentziaren hasieratik amaiera arte bitartekaritza-lana egin dezaten. Bake Konferentziaren aldeko nazioarteko kongresu iraunkor bihurtu behar da aipatu esparrua.

4.4.3. Egutegia

PAS1. 2003ko martxotik irailera arte

- Bigarren Bake Konferentziako laguntza-sare eta batzordeak mantentzea eta zabaltzea.
- Estatu espainiarreko eta nazioarteko datu-baseak osatzea. Batari zein besteari informazio-agiriak bidaltzea aldiro.
- Europar Batasunean eta AEBetan bitartekaritza eta elkarrizketarako testuinguru eta aukerak bilatzea.

PAS2. 2003ko urritik 2004ko martxora arte

- Euskal Herriko bake-prozesuaren aldeko nazioarteko sarea eratzea, mundu osoko hamar gizon-emakume ospetsuk eta 100 bat lagun ezagunek osatua.
- Europar Batasunean eta AEBetan bitartekaritza eta elkarrizketarako testuinguru eta aukerak bilatzea.
- Europar Batasunaren geroaz egitekoa den eztabaidan Elkarrik izan behar duen esku-hartzea prestatzea.
- Bake-prozesu erabakitzaillearen eta III. Bake Konferentziaren aldeko nazioarteko Kongresua prestatzea.

PAS3. 2004ko apiriletik irailera arte

- Kanpoko laguntza-sareen eta bitartekaritza zein elkarrizketarako aukerak kudeatzea.
- Europar Batasunari buruzko eztabaidan parte hartzea eta Europak euskal arazoaren inguruko eztabaidan parte har dezan saiatzea.
- Nazioarteko Kongresua prestatzen jarraitzea.

PAS4. 2004ko urritik 2005eko udaberrira arte

- Bake-prozesuaren eta III. Bake Konferentziaren aldeko Nazioarteko Kongresua egitea. Aipatu Kongresuak nazioarteko jende eta erakundeen bitartekaritza aktiboa izan behar du batik bat.

4.5. Antolakuntza

4.5.1. Irizpide orokorrak

Elkarriren ekimenak eta kanpainak bultzatzeko behar diren giza eta antolakuntza-baliabideak prest edukitzea eta etengabe hobetzea da antolakuntza-alorraren eginkizun nagusia. Beste erronka bat honakoa du: Elkarriren hedapena (gizartean zein geografian) eta partaidetza- nahiz laguntza-era berriak sortzea.

4.5.2. Proiektu nagusiak

I. «Bakesarea» proiektua

Helburuak. Bideragarri bihurtzea esku-hartze proiektua babes sozialari, autofinantziazioari eta antolakuntzari dagokienez. Elkarri EAE eta Nafarroako bailara guztietara hedatzea, baita Iparraldean ditugun harremanei eutsi eta gehiago gureganatzen saiatu ere. Datu-base erabilgarri, gaurkotu eta eraginkorra edukitzea,

Elkarriren partaidetza-komunitateari informazioa helarazteko baliagarri zaiguna. Proiektuaren helburua da egungo 500 kide, 70 tailer lokal eta 3.000 bazkidek 2004ko amaieran honako datu hauen arabera izatera pasatzea Elkarriren erretratua: 800 kide, 85 tailer lokal, 4.000 bazkide edo aportante, 10.000 kolaboratzaile eta Elkarriren 100.000 laguneko sarea.

Edukiak. Hiru ardatza nagusi ditu Bakesarea proiektuak: partaidetza-komunitatea kontsultatzea, Tailer Lokalak sortzea eta sendotzea, datu-baseen kudeaketa. (1) Kontsultari dagokionez, parte hartzeko hainbat aukera eskainiko dizkie herritarrei. Bakesarea proiektuaren lehenbiziko lorpen gisara kudeatu behar dira horren emaitzak. (2) Era berean, antolakuntza hobetzeko eta tailer lokalak sortzeko planari ekin behar zaio herrialde guztietan, lan sistematikoa eginez jende gutxien dugun eskualdeetan. (3) Partaidetza-sare garrantzitsua sortu behar du Bakesareak, Elkarrik orain arte erabili duen informazio-sareari (Eraikisarea) gehitu behar zaiona. Beraz, bi sareok berrantolatu eta batu egin behar dira, lan bikoitzik ez egiteko eta informazio-bidalketak ziurtatzeko. Bake Konferentzia hasterako prest izan behar du datu-base horrek, baita haren euskarri nagusietakoa izan ere.

(Antolakuntza-lan horrekin batera partaidetza-modu berriei buruzko etengabeko hausnarketa sakontze-lana egin behar da. Aipatu ditugun idatzizko materialei honakoa gehitu behar zaio: Madrilgo Tailerrak VII. Batzar Nagusian aurkeztutako txosten osagarria).

II. Mobilizazioak Bake Konferentzia garaian (2004-2005)

Helburuak. Bake Konferentzian parte hartzeko bideetako bat herritarren mobilizazioa izatea. Zenbakitan esanda, bakearen aldeko 100.000 adierazpen lortu nahi ditu Elkarrik epe horretan.

Edukiak. Bi eratako mobilizazioak bultzatuko ditu Elkarrik Bake Konferentzia garaian: (1) milaka lagunuen manifestazioak gure herri eta hirietako kaleetan (2) 100.000 lagun baino gehiagoren bake-nahiaren adierazpena, konpromiso-ekimen baten aldeko sinaduraren bitartez.

4.5.3. Egutegia

PAS1. 2003ko martxotik irailera artean. Bakesarea: 1. fasea

- Elkarriri laguntzeko edo Tailer Lokaletan jarduteko prest daudela erantzun dutenekiko kudeaketa-plana prestatu eta aplikatzea, 100 bazkide berri egiteko helburuarekin.
- Tailer Lokalak hobetu eta sendotzeko plana prestatu eta aplikatzea.
- Zortzi Tailer Lokal berri sortzeko plana prestatu eta aplikatzea.
- Eraikisarea eta Bakesarea berrantolatu eta bat egiteko proiektua prestatzea.

PAS2. 2003ko urritik 2004ko martxora. Bakesarea: 2. fasea

- Eraikisarea eta Bakesarea berrantolatu eta bat egiteko proiektua aplikatzea.
- Tailer Lokalak hobetu eta sendotzeko plana aplikatzea.
- Zazpi tailer lokal berri sortzeko proiektua aplikatzea.
- Ehun kide berri egitea Elkarrik, bai kontsultako erantzunen kudeaketaren bidez bai «Gizarte-konpromiso bat eta lau ekimen» kanpainan zehar egingo diren partaidetza-proposamenen bidez.
- «Gizarte-konpromiso bat eta lau ekimen» kanpaina bultzatzea eta mobilizazioak prestatzea.

PAS3. 2004ko apiriletik irailera. Bakesarea: 3. fasea

- Eraikisarea eta Bakesarea berrantolatu eta bat egiteko proiektua amaitzea.
- Tailer Lokalak hobetu eta sendotzeko plana aplikatzea.
- Tailer Lokal berriak sortzeko planari jarraipena ematea.
- Ehun kide berri egitea Elkarrik, bai «Gizarte-konpromiso bat eta lau ekimen» kanpainan zehar egingo diren partaidetza-proposamenen bidez bai Bake Konferentziaren prestakuntzen bitartez.
- Gizarte-konpromiso bat eta lau ekimen» kanpaina eta mobilizazioak bultzatzea.

-Bakearen aldeko 100.000 borondate mobilizatzeko proiektua prestatzea eta martxan jartzea.

PAS4. 2004ko urritik 2005eko udaberrira

-Bakesarea proiektua amaitzea honako atal hauei dagokienez: bazkide eta partaide berriak bilatzea, Tailer Lokal berriak sortzea eta datu-base berriaren optimizazioa.

-Bakearen aldeko 100.000 borondateren mobilizazio- eta herritarren manifestazio-programa garatzea, Bake Konferentziaren barruan betiere.

4.6. Komunikazioa

4.6.1. Irizpide orokorrak

Elkarriren proposamenak gizarteari helaraztea da lan-alor honen eginkizuna. Gure mugimenduen ideiak, iritziak, ekimenak eta kanpainak egokiro eta koherentziaz komunikatzea da, finean, helburua. Hedabideak, Internet, aldizkaria, Eraikikasi, etxez etxeko propaganda-banaketa eta gure partaidetza-komunitatearekiko komunikazioak dira horretarako tresnak.

4.6.2. Proiektu nagusiak

I. «Internet, parte hartzeko beste bide bat» proiektua (2003-2004)

Helburuak. Gure web orria informazio-tresna ez ezik baliabide interaktiboa ere izatea. Bake Konferentzian parte hartzeko tresna nagusia izan dadin prestatzea Elkarriren web orria.

Edukiak. Hona hemen zein diren Interneten egin beharreko lanaren ardatzak: Elkarriren esku-hartze proiektuen informazio osoa eta gaurkotua eskaintzea; nazioarteko eta estatu espainiarreko datu-baseetara bi informazio-buletin aldiro-aldiro bidaltzea; Elkarrin web orriaren bidez parte hartzeko erak martxan jartzea eta sendotzea; «partaidearen txokoa» (Elkarriko kideek elkarrekin informazioa trukatzeko eremu pribatua) sortzea, eta, azkenik, bake-prozesuari buruzko kontsulta-fondo on-line bat sortzea.

II. Komunikazio-proiektu integratua (2004-2005)

Helburuak. Elkarrik dauzkan komunikabide guztiak (aldizkaria, Elkarrikasi, Eraikikasi, buletinak, etxez etxeko propaganda, esku-orriak, kartelak eta web orria) Bake Konferentziaren zerbitzura jartzea.

Edukiak. Elkarriren baitako komunikazio-tresna guztiak harmonikoki bideratzea Bake Konferentziaren alde buru-belarri ari daitezen.

4.6.3. Egutegia

PAS1. 2003ko martxotik irailera

-Partaidetza-komunitateari egin behar zaion kontsultan jartzea Elkarri komunikazio-baliabide guztiak: prentsako agerraldiak, argitalpenak eta Internet.

-Web orriaren erreformak aplikatzea.

PAS2. 2003ko urritik 2004ko martxora

-Elkarriren komunikazio-baliabide guztiak «Gizarte-konpromiso bat eta lau ekimen» kanpainan jartzea.

-Web orriaren erreformak aplikatzea.

-Bake Konferentziarako komunikazio-proiektu integratuaren prestakuntza hasia.

PAS3. 2004ko apiriletik irailera

- Elkarriren komunikazio-baliabide guztiak «Gizarte-konpromiso bat eta lau ekimen» kanpainan jartzea.
- Bake Konferentziarako komunikazio-proiektu integratua martxan jartzea.

PAS4. 2004ko urritik 2005eko udaberrira

- Elkarriren komunikazio-baliabide guztiak Bake Konferentziaren lau ardatzetara bideratzea: herritarren mobilizazioa, foro soziala, alderdien arteko elkarrizketa eta Nazioarteko Kongresua.
- Bake Konferentziarako komunikazio-proiektu integratua aplikatzea.

4.7. Finantziazioa

4.7.1. Irizpide orokorrak

Dirua eskuratzeko proiektuak diseinatzea eta gauzatzea da finantziazio-alorraren erronka nagusia. Ez, ordea, bakarra: diruzaintza, aurrekontuak egitea eta kudeatzea, subentzioak eskatzea, diru-laguntza ematen digutenei kasu egitea edo diru-laguntza ematen dutenen kopurua handitzea ere bere gain izango ditu alor honek.

4.7.2. Proiektu nagusiak

I. ARTElanak 2003 ekimena

Helburuak. Urteko aurrekontuaren arabera, gastuak eta diru-sarrerak osatzeko behar den diru-kopurua lortzea hainbat artelanen salmentatik.

Edukiak. Hona hemen ARTElanak 2003 ekimenaren funtsa: hainbat artelan (eskulturak, serigrafiak eta grabatuak) salgai izatea 2003. urte osoan.

II. ARTElanak 2004 ekimena

Helburuak. Urteko aurrekontuaren arabera, gastuak eta diru-sarrerak osatzeko behar den diru-kopurua lortzea hainbat artelanen salmentatik.

Edukiak. ARTElanak 2004 ekimenak produktu bakar bat eskainiko du. 2000. urtean argitaratu genuen *Errealitatea, esperantza* liburuaren antzekoak izango dira ekimen honen helburu eta ezaugarriak.

4.7.3. Egutegia

PAS1. 2003ko martxotik irailera arte

- Diruzaintza-, aurrekontu-, diru-emaille eta subentzio-alorren kudeaketa arrunta, baita Finantziazio Programa Osagarria ere.
- ARTElanak 2003 ekimena martxan jartzea.
- Berrehun diru-emaille gehiago lortzeko helburuarekin, kontsultaren erantzunak kudeatzea.
- Bake Konferentziaren 250 bultzatzailek izena emateko proiektua abian jartzea. Horietako bakoitzak honako konpromisoa hitzartuko luke: hilean 30 euro ematea Elkarriri, bi urtez.

PAS2. 2003ko urritik 2004ko martxora

- Diruzaintza-, aurrekontu-, diru-emaille eta subentzio-alorren kudeaketa arrunta, baita Finantziazio Programa Osagarria ere.
- ARTElanak 2003 ekimena aurrera eramatea.
- 250 bazkide gehiago biltzea Elkarrira, kontsultaren erantzunak kudeatuz eta «Gizarte-ekimen bat eta lau konpromiso» kanpainan egindako eskaintzen bitartez.
- ARTElanak 2004 ekimena prestatzea.

PAS3. 2004ko apiriletik irailera

- Diruzaintza-, aurrekontu-, diru-emaile eta subentzio-alorren kudeaketa arrunta, baita Finantziazio Programa Osagarria ere.
- ARTElanak 2004 ekimena martxan jartzea.
- 250 kide gehiago biltzea Elkarrira, kontsultaren erantzunak kudeatuz eta «Gizarte-ekimen bat eta lau konpromiso' kanpainan eta Bake Konferentzian egindako eskaintzen bitartez.

PAS4. 2004ko urritik 2005eko udaberrira

- Diruzaintza-, aurrekontu-, diru-emaile eta subentzio-alorren kudeaketa arrunta, baita Finantziazio Programa Osagarria ere.
- ARTElanak 2004 ekimena garatzea.
- 250 kide gehiago biltzea Elkarrira, Bake Konferentzian egindako eskaintzen bitartez.
- ARTElanak 2005 ekimena prestatzea.